KRISIA=AUKERA. BEHARKO!

·Zuek bai jakin!: Juanito Urtzelai **·Elkarrizketa:** Maria Luisa Carrillo **·Izerdi patsetan:** Goitia ahizpak aizkolari ohiak **·Boteprontoan:** Fermin Goenaga

Herri Aldizkaria

Otamotz

2011ko
azaroa
172. alea

legauto
www.legauto.net

-Mekanika orokorra
-Karrozeria
-Ordezkapen autoak
-Zerbitzu berria: garbiketa integrala
-Nissan autoak eta bigarren eskuko autoak

Urretxuko errepidea - LEGAZPI
Tel.: 943 73 35 95 - Fax: 943 73 16 59
legauto@teleline.es

NISSAN

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

GURE LANAK PREBENTZIOA DU HELBURU

KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
☎ 943 72 41 00
e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09
e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA

Argitaratzailea: Goierriko Hedabideak. Labeaga 12, Urretxu. 943 72 34 08 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Banaketa:** Etxeraino **Publizitatea:** Mikel - 647 319 775 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

04 **Hilabete honetako gaia**
Krisia=aukera. Beharko!

9 **Zuek bai jakin!**
Juanito Urtzelai: 84 urterekin Orhi mendira

12 **Komikia / Egurra partitzen**

13 **Zenbat buru, hainbat aburu**
Agiñaga auzora sarritan joaten al zara?
Ba al dakizu bertan pilotalekua egin dutela?

14 **Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**

16 **Klik eta klik**
Carlos Mediavilla

19 **Elkarrizketa**
Maria Luisa Carrillo

23 **Gure gomendioa**

25 **Izerdi patsetan**
Maria Anjeles eta Maria Jesus Goitia aizkolari ohiak

28 **Gure aholkuak**

29 **Argazki zaharra**

30 **Boteprontoan**
Fermin Goenaga

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

Krisia=aukera. Beharko!

Gutako gehienok sekula ez dugu ezagutu orain dugun krisia bezain gogorrik. Jende askok lanpostua galdu du, lanean jarraitzen dutenei soldatak izoztu edo jaitsi egin zaizkie, ez dakigu zulo honetatik aterako garen... "Baikorrenek" krisiek aukera berriak bilatzeko balio dutela eta hori egiten dutenak indartuta ateratzen direla esaten dute. Esan diezaietela hori langabezian gelditu direnei... beharko aukera berriak bilatu! Lanbidez aldatzea edo ikasketetan sakontzea erabaki duten lau lagunekin hitz egin dugu.

Istekot Lizarralde bere familiaren baratzean.

Istekot Lizarralde: "Beti gustatu izan zait lorezaintza, aisialdian lantzen nuen, eta lantegia itxi zenean argi ikusi nuen"

Istekot Lizarralde zumarragarrak 36 urte ditu eta metalaren sektorean lan egin du beti. Duela bi urte Sidenorrek Legazpiko fabrika ixtea erabaki zuen eta langileei Basaurira joatea eskaini zien. Lizarraldek kalte-ordaina eskatu eta bere ametsa betetzea erabaki zuen: baratzezaintza ikasi zuen eta aurten lorezaintza modulua bukatzen ari da.

Bere garaian Lanbide Heziketa ikasi zuen, mekanika, eta beti siderurgian lan egin du. Ekoizpen eta mantenu lanak egin zituen Estanda, Irimo, Gelman eta Sidenor enpresetan. "Ez dago esaterik lan horietan gustura nengoenik. Joera nagusiari jarraitu nion. Hemen metalak indar handia du eta zertan lan egin nahi zuen oso argi ez zuenak mekanika edo elektrizitatea ikasten zuen. Nik elektrizitatea atsegin ez nuenez... Lanean ez nengoen gogo txarrez, baina ez lan horiek ez ninduten asebete. Lan egin, dirua irabazi eta kito".

Denbora asko zeraman lanbidez aldatu nahian eta Sidenorren erabakiak pausoa ematera animatu zuen. "Beti gustatu izan zait lorezaintza eta aisialdian lantzen nuen. Lantegia itxi zenean, argi ikusi nuen. Gainera, hasieratik emaztearen babesa izan nuen. Basaurira joateko 4.00etan jaiki behar nuen eta handik 16.00etan itzuliko nintzen. Hamabi ordu lan egin eta zortzi kobratzea zen. Horretarako, nahiago nion lau ordu hemengo edozeini oparitu... Gainera, nire ametsetako lana izango balitz... Bestalde, bi mutiko ditugu. Ordura arte ez nintzen ausartu pausoa ematera lanean eroso nengoelako: ez zidan ahalegin fisiko handirik eskatzen eta etxetik gertu lan egiten nuen. Gauza bakarra zuen txarra: asteburuetan eta gauez lan egin beharra".

Lore zaletasuna amonaren eta amaren eskutik datorkio. "Amak loradenda eduki zuen eta nik lagundu egiten nion. Amaren Eguna, Santu Guztiena eta Maiteminduena oso gogorrak izaten ziren, baina gainontzekoetan lan polita zen. Gainera, emaztearen familiaren etxean baratza dugu eta horrek lan hauek gehiago maitatzera eraman naute".

Bere ama oso harro dago, noski. "Zalantzaren bat dudanean galdetu egiten diot, berak ere galderak egiten dizkit... Ezagutza trukatzen dugu. Siderurgian lan egiten nuenean apenas hitz egin nezakeen lanaz amarekin. Egun berriketarako gai bat gehiago dugu".

Esan bezala, baratzezaintza ikastaroa egin zuen eta egun lorezaintza ikasten ari da. "Sidenor 2009ko uztailean utzi nuen eta ondoren Lanbide Heziketa 2 titulua atera nuen. Lorezaintza modulua 2010eko irailean hasten zenez, urtarriletik ekainera bitartean 700 orduko baratzezaintza ikastaroa egin nuen. Zizurkilgo Fraisoro eskolara joan nintzen, lorezain-tza bertan ikasi behar bainuen eta hala ikastetxea ezagutzeko aukera bainuen".

Lizarralde lorezaintza moduluko bigarren eta azken ikastaroa egiten ari da. "Oso gustura nago. Giro oso ona dugu. Ikaskide batzuk ni baino 20 urte gazteagoak dira, baina primeran moldatzen gara. Hamalau ginen eta bederatzik jarraitzen dugu. Irakasleekin harreman oso ona dut. Izan ere, gehienak nire adinekoak dira. Esan bezala, ikaskide gehienak ni baino gazteagoak dira. Beste bat urtebete zaharragoa da. Eraikuntza enpresa batean lan egiten zuen, bulegoan, baina aspertu egin zen eta utzi egin zuen. Gazteek ondo hartu gintuzten. Hasieran harridura erakutsi zuten, baina han zergatik geunden azaldu genien eta ulergarria iruditu zitzaien".

Gazteei ez die aholkurik ematen. "Zer aholku emango diet, ba? Ez nintzen ikasle eredugarria izan... Egun, ordea, adina dela eta gustukoa dudala eta, nota onak ateratzen ditut. Ez diet aholkurik ematen, baina batzuetan irakaslearengandik eurengandik baino gertuago sentitzen naiz. Irakasleari errespetua galdu diotela ikusten badut kargu hartzen diet. Irakasle guztiak oso jatorrak dira eta asko laguntzen dute eta ni ere eurei laguntzen saiatzen naiz".

Ikaskideen artean denetarik dagoela dio. "Batzuek 26 urte dituzte eta beste batzuek 16. Dagoeneko lan mundua ezagutzen dutenek badakite errealitatea zein den. 16 urteko askok, nik euren adinarekin egin nuen bezala, nonbaitera joan beharra dutelako daude han. 20tik gutxi batzuk bakarrik dute argi hori dela euren bokazioa. Goi mailako moduluetan apur bat ezberdina da: Batxilergo ikasketak egin dituzte, helduagoak dira...".

Ondo bidean, udaberrian titulua lortuko dute denek. Lizarralde dagoeneko lantxoak egiten hasi da. "Lorezaintza enpresa gehienek udalentzat lan egiten zuten eta

kinka larrian daude dirurik ez dagoelako. Enpresa horietako batean sartzea zaila iruditzen zait. Neure kontura lan egitea bideragarriagoa iruditzen zait: lan txikiak egitea txaletetan eta lorategi ez oso handietan. Bestalde, terrenoa duen jendeari baratza jartzen laguntzeko asmoa dut. Hasieran zailena aurrekontua prestatzea da, oraindik ez baitakit lan bakoitzak zenbat denbora eramango didan. Gainera, ez dago jakiterik zer aurkituko duzun. Batzuetan zuloa egin eta sorpresa aurkitzen duzu. Beti beste batzuentzat lan egin dut eta norberaren kontura lan egitea arriskutsuagoa da, baina abantailak ere baditu: ni neu naiz neure lana antolatzen duena".

Bere bokazioa aurkitu duela uste du. "Honek ere bere gauza txarrak ditu, e! Eguraldiaren menpe gaude eta hemen euri asko egiten du. Aire librean lan egiteak gauza onak eta txarrak ditu. Lan hau ez da egokia hotza edo beroa gorroto dutenentzat. Natura gustuko dutenentzat eta eguna bulego baten barruan eman nahi ez dutenentzat, ordea, aproposa da. Neure lankide ohiek zer moduz doakidan galdetzen didate. 50 urtekoek edo zor handiak zituzten gazteek ez zuten Basaurira joan beste aukerarik izan. Zorionez, nire emazteak lan egiten du eta ez nengoen Basaurira joatera behartuta. Ez naiz krisiaz ezer esatera ausartzen. Nahikoa aditu badago telebistan... Lantegian berbera gertatzen zen: batek makina bat ekarri behar zutela esaten zuen, besteak eraman egin behar zutela, hirugarrenak... Ezer gutxi dago gure esku: familiakoen eta ingurukoen alde lan egitea eta ur handietan ez sartzea, besterik ez".

Cesar Blanco: "Ahalegin handia egin dut hezkuntza mundura modaltzeko"



Cesar Blanco UGLEko sarreran.

Cesar Blanco Mallorcan jaio zen, baina 14 urte daramatza dagoeneko gure artean. 39 urte ditu eta UGLEn ikasten hasi aurretik Bellotan lan egin zuen. Duela urte pare bat lan istripua izan zuen eta horren ondorioz sorbaldan arazoak ditu. Enpresa uzteko eskaintza egin zioten eta kalte-ordaina hartzea erabaki zuen. Egun industria mantentze ikasketak egiten ari da.

Blancok lana utzi aurretik ere ikasteko gogoa zuen eta gustura ari da. "Oso gustura nago. 14 urteko alaba eta 11 urteko semea ditut eta beti txunditu nau irakasleek hezteko duten abilezia. Orain hori bizitzeko aukera izaten ari naiz eta oso pozik nago. Ikastea oso aberasgarria da".

Etorkizuna begi onez ikusten du. "Modulua hasi aurretik merkatua aztertu nuen, hemendik urte batzuetara eskualdean zer behar egon daitezkeen jakiteko. Soldadura, kontrol numerikoa edo industria mantentzearen artean hautatu behar nuen eta, azken urteotan UGLEtik pasatu den jendeak zer egin duen ikusita, industria mantentzea ikastea erabaki nuen. Klasean 13 lagun bakarrik gaude eta lana aurkitzeko aukera handiak ditugula uste dut".

Langabezia handia den arren, ez da beldur. "Nire ustez pertsona zoriontsua izan behar da egunerokoan. Lanpostu finkoa nuen, baina horrek ezin zuen nire zoriontasuna baldintzatu. Emazteak lanegun osoko jarduna du eta berarekin adostu nuen erabakia". Martxoan gelditu zen langabezian eta ondoren fresatzaile eta tornu ikastaroak egin zituen. Modulua irailean hasi du. "UGLEn jendearen arteko harremana oso ona dela uste dut eta horregatik erabaki nuen bertara joatea".

Ikaskide gehienak bera baino gazteagoak dira, noski. "Eurentzat erreferentea naiz eta ahalegina orain egin behar dutela esaten diet. Ni ez naiz ezertaz damu, baina bere garaian ez nuen nahikoa ikasi. Nire ikaskideen gurasoak ni baino lauzpabost urte zaharragoak besterik ez dira. Ahalegin handia egin behar izan dut hezkuntza mundura moldatzeko. Eurak, berriz, Batxilergotik datoz. Zorionez, UGLEk laguntza berezia eskaini digu ikasketak aspaldi utzi genituenoi. Orain arte seme-alabei ikasteko esaten nien behin eta berriro eta orain ni ikasten ikusten naute. Hori positiboa da. Ikasi beharra dago etorkizun oparoa izateko".

Jose Mari Gonzalez: "Gazteei 70 urte bete arte lan egitea tokatuko zaiela eta asko ikastea komeni zaiela esaten diet"

Jose Mari Gonzalez legazpiarrak 44 urte ditu, ezkonduta dago eta lau urteko semea du. Bere enpresak enplegu-erregulazio espedientea ireki zuen duela bi urte eta UGLEn goi mailako zikloa egiten ari da.

Gonzalez ikasle ona zen, baina nerabe aroan okertu egin zen. "Institutuan ikasten nuen eta UBI hasi nuen, baina ikasketak uztea erabaki nuen. Amak bi arrandegi zituen eta bertan hasi nintzen lanean. Adin horrekin poltsikoan dirua edukitzea eta ondo bizitzea da kontua".

Handik urte batzuetara bizimoduz aldatzea erabaki zuen. "33 urterekin erdi mailako zikloa egitea erabaki nuen. Goi mailakoa ezin nuen egin, ez bainuen UBI titulua. Ondoren lanean hasi nintzen, Zorrotzen. Ez nengoen oso gustura eta Ormaiztegira joan nintzen: Letag enpresara".

Ikastea gustatzen zaio, prestatzea beharrezkoa dela uste du eta ez dio trebatzeari utzi: UGLEra joaten jarraitu zuen eta 2006-2007 Unibertsitatean sartzeko ikastaroa egin zuen. Ondoren Ingeniaritza ikasketak hasi zituen, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalean. "Ingeniaritza ikasketak etxetik egitea oso zaila da eta utzi egin behar izan nuen. Handik gutxira, Letag enpresan enplegu-erregulazioko espedientea ireki zen. Ordurako Unibertsitatean sartzeko ikastaroa eginda nuenez, goi mailako ziklo bat egitea erabaki nuen", laburbildu du.

Lantegietako automatak kontrolatzeko ikastaroa egiten ari da. "Letageko lana gustukoa dut eta ikasten ari naizena bertan aplika dezaket, baina etorkizuna oso ilun ikusten dut. Izan ere, astean lau egunetan bakarrik lan egiten dut, atzerapenarekin kobratzen dugu eta gainera egoerak okerrera egingo duen beldur gara".



Jose Mari Gonzalez bere ikaskideekin.

Irtenbide bakarra ikastea dela dio. "33 urterekin ez nekien kable bat zer zen, baina ikasketak aurrera atera nituen. Izan ere, adin horrekin ondo dakizu zertan ari zaren. 18 urterekin, ordea, egun 18 urtekoek egiten duten bera egiten nuen. Bizitzak bere etapak ditu eta alperrik da gazteei ezer esatea. Kolpea hartu arte ez dugu ikasten. 70 urte bete arte lan egitea tokatuko zaiela eta ahalik eta gehien ikastea komeni zaiela esaten diet. Bestela, lanik txarrenak egitea tokatuko zaie. Erdi mailako zikloa bukatu nuenean oparotasun garaia zen eta berehala aurkitu nuen lana, baina gauzak aldatu egin dira. Zenbat eta titulu gehiago izan, hobe".

Gonzalezek ikasturte honetan bukatuko ditu ikasketak. Udaberrian praktikak egingo ditu. Oraindik ez du erabaki non. "Leku eta une aproposa hautatu behar dira. Lanean hasteko irrikatan nago. Etxean nahiko larri gabiltza eta egonkortasuna lortu nahi dugu. Egia esan, dirua izango banu ikasten jarraituko nuke. Oso gauza ederra da. Dena den, ez naiz gaztaroan egindakoaz damu. Oso ondo bizi izan naiz eta hori ez dit inork kenduko".

Ez du uste egoera ekonomikoak hobera egingo duenik, baina arlo pertsonalean baikorra da. "Lan egitea gustuko dut eta gogoz egiten dut. Badakit edonora joanda ere maila emango dudala. Behar dudana norbaitek aukera ematea da", amaitu du.

Tonet Hermida: "Nire bizitza berreskuratu nahi dut, soldata kobratzen hasi, gurasoen etxetik joan..."

Tonet Hermidak 31 urte ditu. Erdi mailako zikloa ikasi zuen eta, ondoren, zazpi urte eman zituen TTT Goiko enpresan. Hobetzearren Beasaingo Indarrera joan zen eta handik urtebete pasatxora kaleratu egin zuten. Toki guztietan goi mailako tituluak eskatzen dituztela ikusita, UGLEn mantenu ikasketak hasi zituen. Aurten bukatuko du. Lehenbailehen lan mundura itzuli nahi du eta horretarako atzerrira joateko prest dago.

Institututik UGLEra joan zen eta duela hamar urte erdi mailako zikloa egin zuen, mekanizazioa ikasi zuen hain zuzen ere. TTT Goiko eta Indar enpresetan lan egin ondoren, 2009ko otsailean langabezian gelditu zen. "Lan bila hasi nintzen, baina denek goi mailako titulua eskatzen zidaten. Hori dela eta, ikastea erabaki nuen. Bilbon sarrera-proba egin behar izan nuen eta dagoeneko bukatzen ari naiz. Oso argi ikusi nuen gehiago ikasi beharra: lan txukuna aurkitzeko beharrezkoa da. Toki guztietan goi mailako titulua eskatzea ulertzen dut. Tornu batean lan egiteko ingeniariak har baditzakete hori egingo dute".

Hermidak industria-mantenua ikastea erabaki zuen. "Ia hamar urte eman nituen ekoizpen lanean eta apur bat nazkatuta bukatu nuen. Hori dela eta, mekanizatu ezagutza sakondu beharrean, industria-mantenua ikastea erabaki nuen. Asko ari naiz ikasten eta oso gustura nago, baina bukatzeko irrikatan nago".

Izan ere, ia hiru urte daramatza langabezian. "Nire bizitza berreskuratu nahi dut, soldata kobratzen hasi, gurasoen etxetik


Tonet Hermida tornuan.

joan... Nire bizitzak geldialdia izan du eta gurasoen laguntza behar dut. Gainera, ikastea gogorra da: lehen ez zitzaidan gustatzen eta orain are gutxiago. Bederatzi urte neramatzan liburu bat ukitu gabe eta asko kosta zitzaidan ohitzea. Eskola praktikoetan, ordea, primeran moldatu naiz. Bestalde, nire adinarekin presioa handiagoa da: ezin dut kale egin".

Bere ikaskide guztiak gazteagoak dira eta ez dute bizitza modu berean ikusten. "Klaseko zaharrena naiz eta oso ondo moldatzen naiz gainontzeko guztiekin. Ezin dut ezer txarrik esan mutikoei buruz. Hori bai, eurek bizitza era batera ikusten dute eta nik beste batera. Ez daude titulua bi urtetan lortzera behartuak. Dena den, titulua lehenbailehen eskuratzeko eta merkatura ondo prestatuta irteteko esaten diet. Atzera egiterik izango banu gehiago ikasiko nuke. Baina orain erraza da hori esatea...".

Gainera, garai hartan erdi mailako gradua lan egiteko nahikoa berme zen. "Ez nintzen ikasle oso ona, baina mekanizatu ikasketak gustura egin nituen eta nota onak atera nituen. Bukatu eta berehala TTTn hasi nintzen eta zazpi urte eman nituen bertan. Indarrera joateko aukera suertatu zen eta niretzat aukera bikaina zen: peoia izateari utzi eta ofiziala izateko aukera nuen. Oso gustura nengoen, baina krisia dela eta, ez ziguten kontratua berritu. TTTn kontratu mugagabea nuen, baina kalte-ordainak gero eta txikiagoak dira. Ez naiz Indarrera joan izanaz damu".

Esan bezala, lan mundura itzultzeko irrikatan da. "Etorkizuna gaizki ikusten dut. Ez dago lanik. Curriculumak bidaliko ditut eta ezer lortzen ez badut, Euskal Herritik kanpo bilatuko dut: lehenengo Estatuan eta gero hortik kanpo. Nire anaia Galesen dago eta nire arreba Irlandan. Anaiak goi mailako zikloa egin zuen eta GSBn lan egiten zuen, baina langabezian gelditu zen. Ez zuen ezer aurkitzen eta kanpora joatea erabaki zuen. Galesko fabrika batean lan egiten du. Oso gustura dagoela dio, baina haraino joan behar izan du... Arrebak, berriz, Psikologia ikasi zuen. Ez zioten lan txukunik eskaintzen eta ingelesa ikastera joan zen Corkera. Bakoitzak ahal duena egiten du. 31 urte ditut eta nire bizitzari forma ematen hasi behar dut. Kotizatzen hasi beharra dut, bestela ezingo dut familia bat osatu, 80 urte bete arte lan egitea tokatuko zait...".

Juanito Urtzelai: 84 urterekin Orhin, hori da hori sasoia!

Urretxu eta Zumarragan eskarmentu handiko mendizalerik bada hori Juanito Urtzelai da. 84 urte ditu eta oraindik egunero joaten da mendira. Aurten bertan Orhi eta Txinkoki mendiak igo ditu. Ez gailurrean eta ez bidean ez du bera beteranoagorik aurkitu.



Juanito Urtzelai Orhi mendiaren gailurrean, aurtengo irailean.

Non jaio zinen?

Beasainen jaio niintzen. Aitak trenbidean lan egiten zuen eta Altsasun ginela istripu bat izan zuen. Hil egin zen. Ama Legazpikoa zen eta Zumarragara etorri zen bizitzera. 6-7 urterekin Madrilera bidali niinduen ikastera. Handik bi urtera etorri niintzen, gerra hasi zenean. 1938an, berriz, Malagara joan niintzen ikastera. 1941 arte bertan izan niintzen. Garai hartan gosez amorratzen geunden, lanean hasi behar izan niintzen eta eziin izan nuen gehiago ikasi. Lau anaia-arreba bizi gara, baina sei izan ginen: bost arreba eta ni. Beste bat jaio berritan hil zen. Gazteena naiz.

Ama larri ibiliko zen denak aurrera ateratzeko.

Hala da. Pentsio txiki bat besterik ez zuen eta lan asko egin behar izan zuen. Nik 14 urterekin utzi nion ikasteari. Gráficas Legazpi inprentan hasi nintzen lanean eta han ikasi nuen ofizioa. Nire inprenta jarri

nahi nuen, baina ama gaixo jarri zen: ez zidaten soldadutzara bidali ama zaindu nezan, baina bost urte eman nituen aire-an. Ama hilko balitz soldadutzara joan beharra nuen. Ondoren inprenta jartzeko asmoari ekin nion, baina emaztegaiaren aita garraiolaria zen eta berarekin aritzeko eskatu zidan. Izan ere, bi alaba bakarrik zituen eta bestea etxean zegoen. Erretiratu arte garraiolari lan egin nuen Transporten Zeppelinen.

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa? Ondo moldatu al zinen Madrilen eta Malagan?

7 urterekin urtebete eman nuen ama ikusi gabe, beste 300 mutikorekin. Harrezkero beharko ikasi! Madrilera itzuli naiz, baina Malagara ez. Falangistek Andaluziako prozesio guztietara bidaltzen gintuzten. Andaluzia osoa ezagutu nuen. Torremolinos eta Marbella Urretxu bezala-koak zirenean ezagutu nituen. Emaztea Andaluzian egon izan da, baina ni ez naiz joan eta ez naiz joango.

Andaluzian ez, baina kamioiarekin makina bat herritan izango zinen.

Zumarraga eta Irun bitartean lan egin dut. Paketeak eramaten. Lehen 20 urteetan etxetik 8.00etan irteten ginen eta 1.00ak pasatxo itzultzen ginen. 1956an ezkondu nintzen eta 1970 arte ez nuen oporrik izan. 14 urte eman nituen oporrik gabe. Garai hartan oso garraiolari gutxi ginen eta bost tona eramateko prestatuta zeu-den kamioietan zortzi edo bederatzi tona eramaten genituen. Errepide haietan... Buenoooo...

Gustura ibili al zinen lanean?

Gustukoa inprentakoa nuen, baina tira. Garraiolari hasi nintzenean ez nekien batere ez. Gauzak asko aldatu dira ordu-tik. Egun, Donostia ez dut ezagutu ere egiten. Galdu egiten naiz. Donostiako kale asko ahaztu egin ditut. Nahita. Realaren partidak ikustera bakarrik joaten naiz.

Egun garraiolari txikien bizimodua zai-lagoa da.

Garai hartan txiki pilo bat ginen: herri bakoitzak berea zuen.

Nolatan hasi zinen mendian?

Ezkondu aurretik pixka bat ibiltzen nin-tzen, baina garai hartan ez zen irteerarik antolatzen. San Migelera, Aizkorrira... joa-ten ginen. 1967a arte Zumarragako azoka igandetan izan zen eta lan egitea tokatzen zitzaigun. Ondoren, Peciña, Linazasoro eta Bernardinorekin igande goizetan men-dira joaten hasi nintzen. Lehen hiru mila-koa 43 urterekin igo nuen eta azkena 70ekin. Dena den, Jainkoari eskerrak,

"Mendian kontu handiarekin ibili behar da beti: gauza polita da, baina nire errespetua du"

oraindik ondo nabil. Uda honetan Orhin eta Txindokin izan naiz. Belokira ia egune-ro joaten naiz.

Txindokin ez zenuen zure adineko inor aurkituko...

Inor ere ez. Jainkorari eskerrak gaur arte mendi horietan ibiltzeko gai naiz. Bihar ez dakit gai izango naizen. Duela gutxi istripua izan nuen Goiko Txabolan. Goiko bide batean tipo bat ikusi nuen bizikletan eta, hari begira ari nintzela, erori egin nintzen. Pistan bertan, e! Sekulako kolpea hartu nuen. Mendian kontu handiarekin ibili behar da beti. Gauza polita da, baina nire errespetua du. Niretzat mendia asko izan da. Euskal Herrian bertan sekulako parajeak daude. Espainian ere nahiko ibili naiz. Alpeetan, berriz, birritan bakarrik izan naiz. Pirinioetan eta Picos de Europan, ordea, dena ezagutzen dut. Orain hemen inguruan ibiltzen naiz: Beloki, Irimo... Aizkorrira ere asko joaten naiz. Ahal dudan bitartean jarraitu egingo dut.

Zein da ezagutu duzun parajerik ede-rrena?

Urbia zoragarria da, baina Euskal Herrian paraje ikusgarri asko daude: itsas ondokoak, barnealdekoak... Dena den, Urbia da nire kuttuna. Urtero joaten naiz bertara astebete pasatzera. Ceciña, Gotzon Linazasoro, Bernardino Urtzelai eta Ramon Etxanizekin joaten nintzen. Emazteak asteburuan joaten ziren. Orain gazteekin joaten naiz. Iñaki Zabalarekin, Usabiagarekin, Unanuerekin, Primorekin... ibiltzen naiz asko.

Mendizaletasuna asko aldatu dela uste al duzu?

Erabat aldatu da. Gu Pirinioetara soinean generamanarekin joaten ginen. Frantsesak soka eta guzti joaten ziren eta barre egiten genien ezjakintasunak eraginda. Oraingo gazteak gu baino hobeto prestatuta joaten dira. Bestalde, lehen mendi taldeek bi autobus betetzen zituzten eta orain bakar bat ere ez da betetzen. Gazteek nahiago dute euren autoan joan. Lehen denok elkarrekin ibil-tzen ginen. Goierrikoekin eta Ostadarrekoekin joaten ginen.

Mendian momentu on asko pasako zenituen.

Txarrak ere bai, baina horiek ahaztu egiten dira. Mendian kalean ez dagoen elkartasuna ikusten da. Nik txikiteoarekin konparatzen dut askotan. Txikiteoa ere oso ona da harremanak sortzeko, baina edatea kaltegarria da. Ea jendea ibiltzera animatzen den. Ahal izanez gero taldeekin. Bakarrik joatea ez da ona, nahiz eta ni askotan joaten naizen. Telefono mugikorra gauza ona da, baina toki askotan ez dago koberturarik.

Orain lehen baino jende gehiago ibiltzen al da mendian?

Hori uste dut, baina asko korrikan ibiltzen dira eta mendia ez da horrela ibiltzeko. Osasuna ere ez. Askok hemendik 20 urtera hezur guztiak izorratuta izango dituzte.

"Mendian kalean ez dagoen elkartasuna ikusten da, txikiteoarekin konparatzen dut askotan"

Nik izorratuta ditut eta beti oinez ibili naiz! Baina okerrena 84 urte ditudala da. Horrek ez du konponbiderik.

Baina 84 urterekin halako sasoia izatea pozik egoteko modukoa da!

Hala da. Iñaki nire aurretik joaten da eta "bultzadatxoa eman hor atzeko aitonari" esateko ohitura du. Egia esan, nire adineko gehienak zaharren etxean daude dagoeneko. Orain arte zorte handia izan dut. Garrantzitsuena osasuna, dirua eta maitasuna zirela esan zuena ez zen oker ibili. Baina funtsezkoena osasuna da eta jendeak ez du zaintzen. Gazte jendeak parranda handiegiak egiten ditu. Aurrera egin behar da, ordea. Denetan: lanean, politikan... Txikiteo apur bat egitea ondo dago, baina tabernan egotea gauza eskasa da. Mendira joateaz gain emazteari enkarguak egitea, semeei laguntzea eta Ostadarren lan egitea gustatzen zait. Mugitu egin behar da. Gauzak berez etorriko dira.



Juanito Urtzelai, bere semeetako batekin, Gran Facha mendiaren gailurrean (1989).

Mendiren bat igo ez izanaren penarekin gelditu al zara?

Ez. Hemengo, Espainiako eta Pirinioetako ia denak ezagutzen ditut. Santi Usabiagarekin zortzi urte eman nituen larunbatero mendi ezberdin batera joaten. Bera igandetan ere joaten zen eta Euskal Herriko guztiak eginda dauzka. Orain saiilkatu gabe daudenak egiten ari da.

Realaren partidak ikustera joaten zarela esan duzu.

Reala bakarrik gustatzen zaiit. Bartzelonaren partidak ikusten aspertu egiten naiz. Robotak balira bezala jokatzen dute. Hori ez da futbola. Futbolak kolpeak eta kaleak ere behar ditu.

Lehen anaia-arreben artean gazteena zarela eta hiru arreba dituzula esan duzu. Genetika onekoak zarete.

Hala esaten dute. Arreba batek 91 urte ditu, bigarrenak 90 eta hirugarrenak 87. Genetika ona izateaz gain eskolan ohitura onak hartu nituen. Albaitari izan nahi nuen, baina gerrak pikutara bidali zituen gure asmoak.

egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

Xexilia gajoa!

Ez gara bereziki santu zaleak, egutegia gorritu edo berarekin ospakizun ludiko-gastronomikoren bat ekartzen ez dutenean behintzat, baina oraingoan Santa Zeziliari gure omenalditxoa egin nahi genioke. Nekez ikusiko gaituzue pasakalleren batean, edota orain modan jartzen ari diren kantu liburuxka horietako baten atzean —beste santaren omenez kablea gurutzatzen ez zaigun bitartean noski— baina, egia esan, musikarien patroiak triste eta kezkatuta egoteko arrazoi bat baino gehiago ditu. Urrutira joan gabe aldizkari honetako gurua Manolo Escobarren omenaldi batean izan zen orain gutxi... Onerako zein txarrerako, tamalez askoz gehiago dute txarretik, tabernak dira gaur egun musika kontsumorik handienetakoa bultzatzen dutenak eta gure inguruan behintzat, «pedagogia musikaletik», gutxi edo bat ere ez. Modako garitoena benetan desatsegina egiten ari zaigu, nahiz eta sarri etxera lehenago joateko gogoa ere sartu izana eskertu behar diegun. Noizean behin, parrandaren batean edo, abesti txatxu hutsal horietakoren bat beti etorri izan da ondo, baina dosifikagailua izorratu egin zaizue nonbait. Badaezpada, gure belaunaldikoei keinuren bat egin nahi izaten diozuen horietan, badira Mecano, *Esta noche hay una fiesta* edota Miguel Bose baino aukera askoz egokiagoak, edo bederen guk askoz gehiago eskertuko genituzkeenak. Zuen kotxe moloietako doinuak kalean gabiltzanokin konpartitzen dituzuen horiei -bereziki auto beltz bateko pertsonaia- ere borondatea eskertzen dizuegu, baina ekologiarengatik, erregaia garesti dagoelako edo konpasio hutsagatik, erabili zuen eskuzabaltasuna beste nonbait. Bide batez, zorionak benetako musikariei, batez ere gure "rock star" partikularrari eta bere etxekoei, arrazoiak badituzte eta. Ongi etorri Ekai! Posdata: testu hau Zumarragako alkateak Agiñagan bertsoak abestu aurretik idatzita dago.

Agiñaga auzora sarritan joaten al zara?

Ba al dakizu bertan pilotalekua egin dutela?

Arantxa Uria

Bai, badakit pilotaleku berria egin dutela. Dena den, ez dut haraino joateko ohiturarik. Bidea luzea eta aspergarria dela iruditzen zait. Normalean bidegorriko tuneleraino joaten naiz. Agiñara autoan bakarrik joaten naiz. Noizean behin.

Pedro Ballestero

Bai, banuen pilotaleku berriaren berri. Ondo iruditzen zait halakoak egitea. Ona da gauzak egitea. Garai batean askotan joaten nintzen Agiñagara, baina bihotzeko arazoak ditudanetik... Duela pare bat urte joan nintzen azkenezkoz Agiñara.

Teresa Gutierrez

Ez dakit pilotaleku berria egin dutenik. Bidegorrira egunero joaten naiz, mahairaino hain zuzen ere, eta Agiñagako bidegurutzeko seinalea egunero ikusten dut. Baina ez naiz sekula joan. Auzo polita dela esan didazue eta joan egin beharko dut...

Mari Kruz Sudupe

Ez dut pilotaleku berria ikusi, baina badakit eraiki dutela. Oso ondo iruditzen zait. Dena den, Agiñagara joateko ohiturarik ez dudala onartu beharra dut. 37 urte daramatzat Zumarragan eta bi aldiz bakarrik joan naiz. Auzoa gustatu zitzaidan.

bota bertsoa!

2011ko azaroaren 13an, Agiñagako frontoiaren inaugurazioan kantatutako bertsoak

Gaia: Agiñagako frontoiaren inaugurazioa

Doinua: Pello Joxepe

Mikel Serrano

Ametsa egi bilakatu du
zuen denon ahaleginak,
alkate naizen aldetik pozez
betetzen nau zuen grinak,
pilotaleku berri eder bat
estreinatu du Aginak,
modu hoberik ba ote dago
ospatzeko San Martinak?

Aro berri bat ireki zaigu
guztiontzat da ezagun,
askatasuna, itxaropena,
dira herriko ondasun,
frontoi hau izan da betidanik
zuen denon eskakizun,
anaikidetza ta pakearen
ikur bihurtu dezagun.

iritziz iritzi

Gotzon Aranburu



Burujabetasuna, mitinetarako ederra

Esan bai, burujabetasunaren alde gaudela. Gero kontuak, eguneroko bizimoduan. Supermerkatura joan eta begiak irten beharrean ibiltzen gara ea esne merkeena zein den. Bertako baserrietakoa bost zentimo garestiagoa bada hor geratuko da apalean eta Galiziakoa etxeratuko dugu lasai asko. Sagarrak ere, nahiz eta bertakoak zuzenean baserritarrari erosteko aukera ostegunero eta larunbatero izan, ez ditugu euro erdi bat garestiago ordaindu nahiko. Egunkaria erosterakoan beste hainbeste. Ustez euskaldun finak direnak hor ikusten ditut, erdarazko egunkaria besapean dutela. Gero hor ibiliko dira, kantu afarian, «euskera salbu ikusi arte ez dut kenduko bizarra» izugarrizko sentimendu plantak eginez abesten. Telebistaz ari bagara beste hainbeste. Tele 5 eta Antena 3 gure sukaldeetan, eta gu horien zapokeriak irensten lasai asko. Liburuak ez ditut aipatu ere egingo. Antxiñeren azkena eta Mirianena bi herriotan zenbat saldu diren jakin nahi nuke. Galdetzen hasita, zenbat ote dira Zuberoan egun bakar bat pasatako herritarrak? Parisen izandakoen hamarretik bat bai? Ezetz izan Benidormen egondakoen berrogeitik bat. Gauza ederra burujabetasuna, zalantzarik ez. Baina egun batetik bestera lortzen dela uste duena oker dabil. Burujabetasuna eta naziotasuna ez dira hautestontzietan lortzen, egunero landu behar dira. Egunero borrokatu. Edo nahi duzuen aditza erabili, baina egunero. Beste guztia tontakeria da, edota hipokresia latza.

contable kontabilitate
fiscal zerga klaboral lan
contable kontabilitate
fiscal zerga klaboral lan

oreka
asesoría • aholkularitza

Mari Paz Etxeberria Mateos
Karmele Etxeberria Mateos

Secundino Esnaola 12-A Bajo Izda.
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
Tel: 943-082809
Fax: 943-082810
e-mail: asesoriaoreka@euskalnet.net

asesoría contable • fiscal • laboral kontabilitate • zerga • lan aholkularitza

Herri Aldizkaria Otamotz

EGIN HARPIDEDUN

GOIERRIKO hitza info

OTAMOTZ ☐ urtean 20 euro
ZINTZO MINTZO ☐ urtean 25 euro
OTAMOTZ+HITZA ☐ urtean 75 euro

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: • N A :

• Lanbidea: • Jaioteguna:

• Helbidea: • Herria:

• P.K: • Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia: ☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐ ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

902-82 02 01 (Astegunetan 08:30-20:30/Larunbatetan 09:00-13:00) - harpidetza@hitza.info - Barrenkale 13 behea Urretxu

▼

Zuhaitzak.

Carlos Mediavilla

CONFORT auto

ZUAUTO

Mantenu-mekanika berme ofiziala galdu gabe
Klimatizazio sistemak
Osagaien instalazioa
Gurpilen muntaia
Gasolina injekzioa
Turbo-konpresoreak

Motorraren mekanika
Aire egokitua
ABS eta ESP galgak
Diesel injekzioa
Car-multimedia
Esekidurak
Elektrizitatea

EUSKAL HERRIA HIRIBIDEA - ZUMARRAGA - 943 725 448

Maria Luisa Carrillo: 30 urte pintxoak egiten

Maria Luisa Carrillo zumarragarrak oso gaztetatik lan egiten du sukaldean. Lehenengo pintxo lehiaketetako batean saritua izan zen eta azaroaren 6an buzkantzarekin egindako pintxoen lehiaketa irabazi zuen. Duela 15 urte geroztik Hirukia taberna darama Miguel Peña bere lehengusuarekin batera.

Maria Luisa Carrillo pintxo lehiaketan irabazitako diplomarekin.

Zer diozu zure gurasoez?

Aitak sekulako istorioa du. 14-15 urterekin etorri zen Euskadira Extremaduratik. Bere aita gerran fusilatu zuten eta ez du sekula bere jaioterria itzuli nahi izan. Errepublika garaian karguren bat zuen eta horregatik hil zuten. Ama handik gutxira hil zitzaien. Lau anaiak umezurtz gelditu ziren eta gure aita txikiena zen. Amarekin ezkondu zen eta hiru anaia-arrebok hemen jaio ginen. Ama aitaren herri berekoa da, baina nik 28 urterekin ezagutu nuen hura. Aitak ez zuen itzuli nahi eta ez zuen bere jaioterriaz hitz egiten. Gainera, garai haietan ezin zen hitz egin gerran gertatutakoaz. Baina jakinmina nuen. Ez nintzen euskal hiztuna, baina, gainontzeko erdal hiztunek ez bezala, ez nuen pueblorik. Gainontzeko erdal hiztun guztiak gurasoen herrira joaten ziren oporretan eta ni ez. Jakinmina nuen, gurasoen sustraiak

ezagutu nahi nituen, baina aita ez da asko hitz egin zalea eta gutxiago gai horretaz.

Aita eta ama herri berekoak direla esan duzu. Nolatan elkartu ziren Zumarragan?

Nerabezarotik senar-emaztegaiak ziren, baina ez zuten elkar ikusterik. Aitak soldadutza Madrilen egin zuen eta amak bertan lan egiten zuen. Soldadutza egin ondoren, euren jaioterrira itzuli ziren ezkontzera, amaren familia oraindik bertan bizi baitzen eta ondoren Zumarragara itzuli ziren bizitzera.

Zertan lan egin zuen aitak?

Bilbon, Esan, Arrasaten... egon zen apopilo. Bere anaia nagusiak Orbegozon zeuden eta berak ere hona etortzea erabaki zuen. Aizpurutxon jarri zen eta ondoren Zumarragara etorri ziren. 16 urte eman zituen Orbegozon eta gero osaba igeltseroarekin hasi zen. Ostalaritza gustuko zuenez, osabak Hirukia taberna ireki zuenean hemen lan egitea erabaki zuen. Bere etxea da. Lehen urte haietan ez zegoen ordutegirik eta taberna apenas ixten zen.

Noiz hasi zinen ostalaritza munduan?

Mojetan ikasi nuen eta ondoren La Salle-Legazpi ikastetxera joan nintzen Delineazioa ikastera. Bi ikasturte egin nituen. Udan Zestoara joaten nintzen lan egitera. Garai hartan ez zegoen pagarik eta antzekorik eta etxetik irteteko modu bakarra lan egitea zen. Alicia Castillo laguna eta ni Zestoara joan ginen eta Arozena hotelean hartu gintuzten. Bertako nagusien oso oroitzapen ona dut. Asko lan egiten genuen, baina jende zoragarria zen. Beheko mailan hasi ginen, laguntzen: jangelan zerbitzatzen, oheak egiten... Astearte arratsaldean bakarrik libratzen nuen eta, adin txikikoa nintzenez ez zidaten ordaintzen, baina irailean aitaren izena zeraman taloi zoragarri batekin joan nintzen etxera. Hiru hilabete lan egin ondoren 32.000 pezeta ordaindu zizkidatela oroitzen dut.

Nolakoa zen Zestoa garai hartan?

Toki zoragarria zen. Hemen izandako apaiz bat zegoen, Xabier Zubizarreta, eta Zumarragatik joandakoak bere etxean hartzen zituen. Poteatzera ateratzen zen lehen apaiza zen. Borroka politikoaren urteak ziren. Oso oroitzapen onak ditut.

"Toki guztietan negozioa norberarena izango balitz bezala lan egin behar dela esan izan dut beti"

Zer egin zenuen Zestoa utzi ondoren?

Ezkontza garaian Azpeitiara joaten nintzen: Kirurin eta Izarran lan egiten nuen. Asko lan egiten zen, baina ondo kobratzen zen. Asteburuetan Ezkio-Itsasoko Arantzazu jatetxean eta Zumarragako Ezkiotarran lan egiten nuen. Arantzazun jaunartze eta bataio asko ospatzen ziren. Jabeak oso langileak ziren. Ezkiotarrako Migel eta Consuelo ere etxekoak ziren niretzat. Estatu golpeak bertan harrapatu ninduela oroitzen dut.

Urte hartan bertan ireki zen Hirukia.

Negozioa nire osabak ireki zuen: Santiago Peñak. Eskaiolista zen eta eta nire aita bere bazkidea zen. Osabak taberna ireki zuenean aita bertan geldi tu zen lanean. Migel nire lehengusua Tolosan bizi zen, baina handik hiru hilabetera etorri zen. Osabak, ordea, sekula ez zuen tabernan lan egin. Hasieran nik eurek libratzen zuten egunetan bakarrik lan egiten nuen.

Non gehiago egin duzu lan?

Jai Alai jatetxean, Sanorekin, sukalde buru izan nintzen. Han nengoela Azpeititik etorri zitzaizkidan bila. Nire izeba batek Santi jatetxean lan egiten zuen eta sukaldeko lanez arduratzea eskaini zidaten. Ez nuen joateko gogo handirik eta onartuko ez zituztela uste nuen baldintzak jarri nituen. Baina eskatutakoa eskaini zidaten eta joan beharra izan nuen. Ondo erantzun nuela uste dut. Toki guztietan negozioa norberarena izango balitz bezala lan egin behar dela esan izan dut beti: hala denoi primeran joango zaigu. Santin urte pare bat eman nuen. Euskal sukaldaritza tradizionala jorratzen genuen. Santi Azpeitia erdian zegoen jatetxe modernoa zen eta ostalaritza eskolako sukaldariekin lan egiten zuen. Baina astegunetan sukaldaritza xumeagoa behar zuten eta horretarako hartu ninduten. Egunean 15 menu ematetik 60 ematera pasatu ginen eta asteburuetan kartarekin lan egiten genuen.

Autodidakta al zara?

Ikastaro asko egin dut. Sukaldaritza oso gustuko dut, baina beti lan egitea tokatu zait eta ezin izan diot nahi adina denbora eskaini sukaldaritza eta euskara ikasteari. Lanik egiten ez banuen ez nuen jaterik.

Nolatan bukatu zenuen familiaren negozioan?

Aitak erretiratu egin nahi zuen eta Migel bakarrik gelditu behar zuen. Erabakia hartzea asko kostatu zitzaidan. Hamabost urte daramatzat bertan. Aita asteazkenero etortzen da oraindik guri laguntzera.

Duela urte mordoxka pintxo lehiaketa bat irabazi zenuen.

Hura izan zen antolatu zen lehenengoetako. Euskal Herria osoko jendeak bidali zituen errezetak eta nirea hamar hautatuetako bat izan zen. Ez nion inori esan lehiaketara aurkeztu nintzenik, nire errezeta hautatua izatea ezinezkoa iruditzen baitzitzaidan. Oso gaztea nintzen, baina ordurako eskarmentu handia nuen. Dena den, egun dakidanaren laurdena ere ez nekien oraindik. Zer edo zer sinplea eta merkea egin behar zen, arrautza oinarri zuela. Arrautza sorpresa egin nuen buztinezko kazola batean: zuringoa elur-punturaino irabiatu, gorringoa jartzeko tokitxoa egin, esne-krema zorrotadatxo bat bota, pimenta eta hiru minutu labean. Sarituen artean gazteena nintzen eta Juan Mari Arzakek nire pintxoa bere kartan jarri behar zuela esan zuen txantxetan.

"Urte batzuetan dena erraza izan da, baina bezeroak errespetua merezi du eta umiltasun irakaspena behar genuen"

Maria Luisa Carrillo eta bere aita, sukaldari batekin, Hirukia tabernako sukaldean.

Zein izan zen saria?

Elkarte Gastronomikoan afari bikaina eman ziguten. Lehenengoz gaztaina purea jan nuen. Bestalde, hainbat opari eman zizkiguten aukeran: hozkailuak, garbigailuak... Nik Arzak jatetxean afaria hartu nuen. Afari ezin hobea izan zen. Dagoeneko inguruko jatetxe gehienetan izan naiz. Nire bizioetako bat da. Nire ametsa Bullira joatea zen, baina dagoeneko ezinezkoa da. Sukaldari asko ditut gustuko. Ez dut faboritorik.

Beste pintxo lehiaketa bat irabazi berri duzu.

Urte hauetan guztietan ez naiz lehiaketetara aurkeztu, baina hau herrian antolatzen da eta parte hartu beharra dugu. Hirukian lan egiten dugun guztioi ilusio handia egin digu saria irabazteak, ez baikenuen espero eta talde lanaren fruitua izan baita. Ideia Txonirena, nire lehengusuaren emaztearena, eta nirea izan zen. Pintxoak sagarra, calvados, piñoiak eta bruselaza daramatza.

Nola ikusten duzu ostalaritza mundua?

Urte oso onak izan ditugu eta oraingoak zailagoak dira. Nire ustez eustea da gakoa. Urte askotan hamabost ordu jarraian lan egin behar izan dugu eta orain ez gara zortzi ordu lan egin behar dugulako kexatuko! Urte batzuetan dena oso erraza izan da. Bezeroak errespetu handia merezi du. Berari esker bizi gara. Umiltasun irakaspena behar genuen. Bestalde, ohiturak asko aldatu dira. Lehen gehiago poteatzen zen eta ardo gehiago edaten zen. Egungo gazteek freskagarriak nahiago dituzte. Lehen gauez asko lan egiten genuen eta egun egunez gehiago... Larunbatetan, azoka dela eta, lan asko

egiten dugu oraindik ere. Dena den, jendea lehen baino beranduago joaten da azokara eta begiratzera erostera baino gehiago.

Zure burua indartsu ikusten al duzu?

Batzuetan nekea igartzen dut, baina familiaren negozioa da eta jarraitu egin beharko dut... Santin gustura nengoen, baina ez naiz itzuli izanaz damu. Nire osaba hil zen eta egun izeba Marcela da jabea. Ondo samar bizi ahal izateko lan egitea beharrezkoa dela eta datorrenera moldatu beharra dugula oso argi dut. Izen handiko jatetxeetan lan egin ez izanak ez nau penatzen. Zauden tokian zaudela ahalik eta hobekien lan egitea da kontua.

Nola ikusten duzu emakumezkoen rola goi mailako sukaldaritzan?

Ospea gizonek dute, baina emakume bikainak daude.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Elosun bizi naiz, Azkoitiko aldean, Aizpurutxo gainean. Han burukomin guztiak ahazten ditut. Irakurle sutsua naiz eta

Maria Luisa Azpeitiko Santi jatetxeko lankideekin.

ardientzako txabola batean txoko bat prestatu nuen: semeak etxeko lanak egiten ditu eta nik irakurri egiten dut. Zinea ere asko gustatzen zait. Astelehenero Azkoitiko zinemara joaten naiz. Bestalde, 42 urterekin Unibertsitatera joan ahal izateko titulua eskuratu nuen. Soziologia ikasten hasi nintzen, baina oso denbora gutxi dut. Dena den, presarik ere ez dut: ikasgaiak banan-banan gainditzen ditut.

izantek
INGENIARITZA ZERBITZUA
☎ 657 717 900 - 943 03 66 86
Labeaga 56-58, behea URRETXU

ODRIOZOLA
AUTOESKOLA
☎ 943 72 05 05
Gernikako Arbola plaza, 1 - URRETXU

Txilarra
produktu ekologikoak
Belaustegi plaza (Euskaltegi ondoan)
URRETXU

Herri Aldizkaria
Otamotz
TOKI APROPOSA DUZU
HAUXE ZURE IRAGARKIA
JARTZEKO
Mikel - 647 319 775
beasain@iragarri.net

CARPINTERIA METALICA
Futsi
CRISTALERIA
Matxinporta, 45 (Azkoitira bidean)
URRETXU
Tlf: 943 72 39 25 - 943 72 22 84
Fax: 943 72 22 85

GOIKO KALE
Ogitartekoak eta razioak

NATURHOUSE
Kontsulta doan
Labeaga, 5 URRETXU

IRATI
kafetegia
Labeaga, 52 - URRETXU
✆ 943 72 40 25

Autopsiarako frogak

Koldo Izagirre

Euskararen egoera du hizpide Koldo Izagirrek lan honetan. Hizkuntza aberatsa erabili du lan hau egiteko; landua oso. Formatua ere bitxia da, saiakera honetarako poltsikorako liburuena erabili baitu. Izenburuari erreparatuz gero, hildako hizkuntza baten aurrean gaudela dirudien arren, ez da hala. Euskara egun dagoen egoerara zerk ekarri duen aztertu du idazleak: garai batean erabilitako zigorrak eta gaur egun aplikatzen diren legezko tranpak aztertu ditu. Dena dela, ez da salaketa hutsean geratzen den lana. Koldok egoera horretatik ateratzeko ideiak ere proposatzen dizkio irakurleari. Haren esanetan euskara da euskaldunok daukagun eremu bakarra eta hiltzen bada ez da heriotza naturala izango, hainbat eragileren ondorio izango da.

Xabi Lasa

Real gone (2004)

Tom Waits

Adituek eta lurtarrek gutxitan bat egiten dute, baina kasu honetan ia ezinezkoa zen adostasunari trabak jartzea. Waitsen *Real gone* inoiz egin den diskorik onenetakoa da. Erokeria eder bat. Sortzaile ipurterrea da estatubatuarra, eta orain dela zazpi urte, bere ibilbide luze eta oparoan aurrenekoz, pianoan eseri gabe grabatzea erabaki zuen. Harrituta begiratu zioten, baina bazekien, bai, zertan zebilen. Izan ere, diskoa entzun ondoren zur eta lur jarraitu zuten aho bete hortz zeudenek. Hain dira erakargarriak eta iradokitzaileak diskoa honetako abestien doinuak… Halere, hasteko, eta ia beti bezala, Waitsen beraren ahotsak harrapatzen zaitu. Imitaezina. Nola da posible gisa horretara abestea… Nondik ateratzen ote du indarra… Waitsek bere azken lana atera berri du eta: *Bad as me*.

Igor Susaeta



Cirkus Columbia

Danis Tanovic

En tierra de nadie-ren zuzendaria bere sorterrira itzuli da, Bosniara. Eta Jugoslaviako gerraren inguruko ikasgaian sakontzera dator. *Cirkus Columbia* 1991n kokatzen da, gerra hasi aurreko egunetan. Urte luzeetan Alemanian izan ostean jaioterrira bueltatuko da Divko, Mercedes handi batean, poltsikoak txanponez beteta eta neska gazte erakargarri baten eskutik. Herrialdea zatitzear zegoela utzi zituen emaztearekin eta semearekin topo egingo du. Lehenengoa alde batera utzi nahiko du, baina bigarrena berreskuratu. Traizioak, erruak eta barkamenak osatutako hirukia oinarri hartuta, eszenaratze soileko filma dakar Tanovicek, gidoian indarrak batu eta pertsonaien garapena lehertzear den gerraren isla bezala erakutsiz. Hilaren 25ean Zelai Arizti aretoan.

ButaK 21 zineklub taldea

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 02 15
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

ATG
HARATEGIA URDAITEGIA

✆ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

EZKURRA
GOZOTEGIA
URRETXU

Iparragirre, 3 - Tel. 943 72 02 03
Labea: Labeaga, 54 - Tel. 943 72 62 19

centro óptico
JavierArratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
✆ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

KEROS

Ekarri zure argazkiak eta nahi duzun moduan aterako ditugu: koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu 943 72 41 60

BIONA

AROZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

PREMANK
KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA
☎ 943 72 13 70
Fax: 943 03 75 68

Lanbroa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 03 75 27

Montajes e Instalaciones Eléctricas
HERCE
Elektrogintzan, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9- Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN ESKAINTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

Yarmanki
Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13

TABERNA
Iturreta
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

ALEX
KIROLAK

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

iKER

SUKALDEAK

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

julita

MERTZERIA

Sekundino Esnaola, 2 - Tel. 943 72 05 62

Javier Ugarte

HARATEGIA

943 72 43 32 (haratega) - 943 72 54 91 (etxea)
Iparragirre, 1 behea - Urretxu

OZTIX
TABERNA

the intrepid fox

urrats

PODOLOGIA ZENTROA

☎ 943 72 52 23
Labeaga, 31 behea - URRETXU

Maria Anjeles eta Maria Jesus Goitia: belodromoko erreginak

Emakumezko kirolariek sekula ez dute gizonezkoen jarraipena izan ikusleen eta komunikabideen aldetik, baina Maria Anjeles eta Maria Jesus Goitia ahizpa zumarragarrek milaka ikuslek eurek txalotzea lortu zuten duela jada 30 urte. Goitia ahizpak aizkolariak ziren, seguru asko aizkoran aritu ziren lehen emakumeak, eta 1980ko urtarrilaren 20an Euskadiko Sei Orduetan parte hartu zuten. Egun hartan Arkonada edo Retegiren pare sentitu ziren. Maria Anjelesekin hitz egin dugu euren aizkolari garaiari buruz.



Maria Anjeles Goitia belodromoko saioan.

Goitia ahizpak San Kristobaleko Aitzaga baserrikoak dira. Beti izan dira kirolzaleak. "Mendira joatea gustatzen zitzaigun eta halako batean sokatiran hasi ginen. Ondorengo guztiaren errua sokatirarena da. Ikastolaren aldeko jaialdi baterako nesken sokatira taldea osatu zen Zumarragan. Ordurako mutilen taldea zegoen eta eurekin entrenatzen genuen, Akelarre azpian dagoen garajean. Denak Urretxu eta Zumarragakoak ginen, gizonezkoen taldeko ezagunak: Oraako nire lehengusuak (Jauregi ahizpak), Kortaberri baserriko Etxaniz, Agiñako Joxepi, kaleko Maite Urrestarazu, ahizpa eta biok...".

Donostian estreinatu zinen eta gero Euskadiko txapelketa irabazi zuten, baina taldeko kide bati (Maite Etxanizi) bihotzekoak eman zion saioa bukatu eta gero. "Gainontzekoak baino helduagoa zen eta animoak emateko omenaldia egitea era-

baki genuen. Zer edo zer berezia egitearren, aizkoran hastea erabaki genuen. Jaialdi hartan, ahizparekin eta nirekin batera, beste bi neska aritu ziren".

Egurra ebakitzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. "Erraza dela ematen du, baina egurra ebakitzea asko kostatzen da. Ugarteburuk-eta irakatsi ziguten eta jaialdi hartan arrakasta izan genuen. Garai hartan halako festa asko antolatzen ziren eta toki guztietatik deitzen hasi ziren".

Oso gustura aritu ziren. "Giroa asko gustatu zitzaigun eta saltsan sartu ginen. Mendira joatea beti gustatu zait eta

Euskadiko Sei Orduetan Maria Anjeles Mendizabalekin aritu zen eta Maria Jesus Mindegiarekin

horrek mesede egiin zidan aizkorarekin aritzeko orduan: fondoa nuen. Baserrian lan egiteak ere asko laguntzen du. Horrek pertsona gogortu egiten du. Baserrian lan egitea eta bulego batean sartuta egotea ez dira gauza bera. Baserrian ariketa egiten da".

Egun emakume gutxi aritzen dira herri kiroletan eta garai hartan gutxiago oraindik. "Neskak aizkoran aritzea gauza berria zen eta toki askotatik deitzen ziguten. Heltzen ginenean harrituta gelditzen ziren: *zuek egiin behar al duzue aizkoran?*, galdetzen zuten. Bi

Maria Anjeles Goitia garai bateko argazkiak ikusten.

neska mardul espero zituzten eta gu, ordea, argalak gara. *Hauek zer egingo ote dute?*, pentsatzen zuten. Egia esan ez genuen beste munduko ezer egiten", dio umiltasunez.

Baina enborra mozteko gai izate hutsa ez da gutxi eta jende asko joaten zen euren saioak ikustera. "Nobedadea zen. Kuriositatea. Argalak garenez harritu egiten ziren eta hankarik ez ebakitzeko behintzat esaten ziguten. Adinekoei harrigarriagoa iruditzen zitzaien. Gu ginen aizkoran egiten genuen neska bakarrak. Festa garaian, Santiago egunean-eta, egun berean hiru saio eskainitakoak gara". Ahizpak gutxira utzi zuen, lanean hasi zenean. "Ez zuen entrenatzeko denborarik eta gainera tabernako lana ez da gorputzarentzako egokiena. Nik baserrian jarraitu nuen ezkondu arte eta, beraz, niretzat errazagoa zen kirolean aritzea".

Ahizpak utzi zuenean, Ino Ugartebururekin hasi zen. "Bera aitzurrarekin eta ni aizkorarekin, elkarren aurka aritzen ginen. Lau bat enbor ebakitzen genituen bakoitzak. Kanaerdikoa baino pixka bat txikiagoak. Makala erabiltzen genuen, baina pinua eta pago biguna ere bai. Gehienetan Ino nagusi-tzen zen, baina batzuetan ni nagusitzen nintzen. Bost bat urtetan aritu nintzen. 25 urterekin ezkondu egin nintzen eta utzi egin nuen".

Oso oroitzapen onak ditu. Izan ere saio batzuk gogoangarriak izan ziren. Mikel Mindegia handiak Tolosako zezen-plazan egin zuen errekor saio batean parte

hartu zuen, adibidez. "Saio hartarako inoiz baino gehiago entrenatu nuen. Pagoa ebaki genuela gogoratzen dut". Baina oroitzapen onena, zalantzarik gabe, Euskadiko Sei Orduetan parte hartu zutenekoa da. "Txomin Perurenari omenaldia egin zitzaion urtean parte hartu genuen: nire ahizpa Mindegiarekin aritu zen eta ni Mendizabalekin. Mindegia eta Mendizabalek egur handia ebakitzen zuten eta guk txikia, txandaka. Niretzat hura ikaragarria izan zen: belodromoan eta Sei Orduetan! Garai hartan Euskadiko Sei Orduek arrakasta handia zuten eta halako mailako aizkolariekin aritzea sekulakoa zen".

Gizonezkoekin oso ondo moldatzen zirela dio. "Ez ziguten gaizki begiratzen. Oso giro ona genuen eta saioen ondoren elkarrekin joaten ginen afaltzera. Irakatsi egiten ziguten, beti aizkoraren bat uzteko pronto izaten ziren... Hori bai, ez pentsa elkarri barkatzen genionik! Plazatik kanpo ondo moldatzen ginen, baina plazakoa aparte zen: ahizpari ez nion barkatzen! Jendeak gero elkarrekin afaltzen genuela esaten zuen, baina plazan serio demonio aritzen ginen".

Duela urte asko utzi zion aizkoran aritzeari, baina herri kirolen mundua ez du utzi. Gertutik jarraitzen du. "Orain Xabier Zaldua dugu herrian eta ahal dudan saio guztietara joaten naiz. Senarra ere oso zalea dut. Aizkolaria nintzenean bera nuen laguntzaile eta beti asko animatu ninduen. Gaur egun ez dago neska aizkolaririk eta horrek pena ematen dit. Noizean behin bakarren bat azaltzen da, baina ez du jarraipenik izaten. Harri jasotzaileak hobeto ari dira, baina niire ustez aizkora harria jasotzea baino politagoa da. Kirol osoa da. Gauza bakarra du txarra: garestia dela. Egurra garesti dago eta behiin bakarrik ebaki daiteke. Dagoeneko ez dut aizkora hartzen, baina ahal dudan guztietan Izazpiira joaten naiz", amaitu du.

Maria Anjeles Goitia, Mikel Mindegia eta Ino Ugarteburu Tolosako zezen-plazan.

avenida Pub Taberna

TABERNA denak



Alex Areizaga

Informatika

Ultrabook

Osabari bidali nion SOS-ak arrakasta itzela izan du. Nitaz gupida izan du eta itzuli egin da erretirotik. Berea da gomendioa. Ongi etorri berriro frikien artera osaba! Intelek, PCentzako ekoizle handienak badaki zer behar dugun: portatil arin bat, potentzia handikoa, arranke bizkorrekoa, diseinu erakargarria duena, autonomia handia... eta prezio ona. Ultrabook izena du horrek eta 2012 amaieran salduko diren ordenagailuen %40a hauetakoak izango direla aurreikusi dute. Ivy Bridge prozesagailu berriaz hornituak (Standy Bridgeak baina txikiagoak, kontsumo gutxiagorekin eta errendimendu handiagoarekin), sistema 10 segundotan abiarazten dute. Tapa ireki-tzen dugunerako korreoa automatikoki jaisten digu. Segurtasun gailuak ditu, lapurreten aurkakoa kasu. Appleren Macbook Air-arekin lehiatzera dator produktu hau, eta 1.000 eurotik beherako prezioan salduko dute. Ea kontuak irteten zaizkien...

Miren Arrieta

Osasuna

Bihotzeko gaitzak

Bihotzeko gaitzak geroz eta maizago gertatzen dira pertsona gazteen artean. Lehen helduagoenak uste genituen gaixotasunak gero eta gazteagoak direnetan sarriagoak direla ikusi da eta ikerketa askoren ondoren egungo bizimodu eta hain hedatua dagoen droga ezberdinen kontsumoarekin zer ikusi handia duela jakin da. Hala nola, estresa, tabakoa, alkohola eta kokaina dira eragile nagusiak, baina besteen artean kokainaren kontsumoa da 20-40 urte tarteko pertsonen bereizgarri nagusia eta emakumezko gazteetan bihotzeko gaitzen intzidentzia handitu duen arrazoietako bat (hilerokoa duten bitartean estrogenoengatik berezko babesa dutenak). Kokainak bihotzeko arteriak estutzen ditu, era berean tentsioa igo eta bihotzaren frekuentzia azkartzen du eta honek guztiak aurrekaririk gabeko gazte osasuntsuetan bihotzeko infartu akutua edo eta bat-bateko heriotza eragin ditzake.

1977

Zumarragako gizon-proba

Goran, ezkerretik eskuinera: Mariano Elortza, Jesus Soraluze, Jose Mari Zabaleta, Eulogio Legorburu, ..., Jesus Zaldua, Jabier Soraluze eta Inazio Irastortza. Behean, ezkerretik eskuinera: Patxi Elortza, ..., Jose Mari Aizkibel, Anjel Mari Jauregi, Toribio Kerjejeta, Markos Oiarbide, Pello Zaldua, Luzio Jauregi eta Jose Ramon Igartua.

Fermin Goenaga

Fermin Goenaga zumarragarrak ostalaritza munduan lan egin du urte askotan. Ezkiotarra tabernan hasi zen eta ondoren Suitzan, Frantzian eta Italian lan egin zuen. Handik itzuli zenean Zelai Arizti taberna hartu zuen. Berit izenekoaz ere arduratu zen eta bera izan zen Zelaikoa tabernako lehen nagusia. Sendabelarren eta likoreen munduak oso gustuko ditu eta Luis Romero lagunarekin batera onddo-likorea egin du. Perretxikoekin edaria egiten lehenak direla uste dute eta oso gustura daude izandako harreraz.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Ostalaria. 13 urterekin Ezkiotarran hasi nintzen.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Poteatzea eta lagunentzat gutiziak prestatzea. Bestalde, sendabelarren mundua oso gustukoa dut.

Bizitzeko toki bat?

Italia. Gaztaroa han eman nuen eta oso gustuko dut. Semeagatik ez balitz hara joango nintzateke.

Gustuko likorea?

Benedictine. Leireko upategi pribatuan izan nintzen Fray Germanekin eta Espainiako erregearen ondoren sinatu nuen bisita liburuan.

Gustuko perretxikoa?

Onddoa.

Gustuko konbinatua?

Havana rona limoizko Kasarekin. Juan Carlos Irizar piano-jolearen eskutik hasi nintzen rona edaten.

Ilehoriak ala beltzaranak?

Garrantzitsuena izaera da.

Egindako azken oparia?

Onddo batzuk Ezkiotarra taberna eraman zuen Consuelori. Emakume bikaina da. Sekulako sentikortasuna du eta berak irakatsi zidan lanbidea.

Eta jasotakoa?

Consuelok berak emandako musua.

Data bat?

Urriaren 14. Egun horretan jaio eta hil zen nire aita. Oso gaizki pasatu nuen hil zenean.

Mutil eta neska izen bana?

Ander, semearena, eta Lourdes, arrebarena.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Lehen *DV* bakarrik irakurtzen nuen eta duela urtebete ingurutik hona *Noticias de Gipuzkoa* ere bai. Orain langabezian nago eta egunkari gehiago irakurtzeko astia dut, baina kiroletakoak ez ditut irakurtzen.

Gustuko telebista saioa?

Telebista oso gutxi ikusten dut.

Bereziki gorroto duzuna?

Reality show direlakoak eta bihotzekoak ezin ditut jasan.

Pelikula bat?

Gehien txunditu nauena *Papillon* da. 1974an ikusi nuen, frantsesez, eta benetan txunditu ninduen lehen filma izan zen.

Liburu bat?

Maurice Messegueren sendabelarren liburua. Landareen historia kontatzen du. Nik antzerako zer edo zer egiten nuen Segura Irratian izan nuen irratsaioan.

Soinu bat?

Haizearen udazkenean, hostoak botatzen dituenean.

Usain bat?

Belar moztu berriarena asko gustatzen zait.

Janari bat?

Tagliatelle bolognia erara.

Ura ala...

Ardoa. Aukeran, Marchese di Barolo.

iKER

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

FAGOR

construcciones
mendiola

Labeaga, 7 URRETXU
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

Etxebizitzen
Eraikuntza

Industria
Pabilioiak

Urbanizazio
Lanak

ZUM Edizioak